

# Filosofia Ikasgelan

## 1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa II
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Mitxelko Uranga

## 2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honetan filosofia ikasgelara eramateko estrategiak eta metodoak landuko ditugu, garai berrietara egokitu behar duen irakaskuntza-eredua lortu aldera. Curriculum berria aztertuko dugu, filosofiaren zentzuei erreparatuko diegu, “filosofia ikasi” eta “filosofatzen ikasi” dialektika gainditzeko bideak ikusi, filosofia irakaslearen rola aztertu, aurkituko dituen arazo eta oztopoak identifikatu, ikasleak ebaluatzen metodoetan sakondu eta ikasgaiari nola heldu ikasiko dugu.

## 3. Konpetentziak

- Filosofiarako indarrean dauden curriculum-proposamenak ezagutzea, bai derrigorrezko bigarren hezkuntzan eta baita derrigorrezko irakaskuntzaren ondoren.
- Filosofia balioesteko gai izatea, bai derrigorrezko bigarren hezkuntzan eta baita derrigorrezko irakaskuntzaren ondoren.
- Oinarri kontzeptual, zientifiko eta metodologikoen oinarriak bereganatzea, eta baita diziplinaren baliabide didaktikoak ere. IKTen eta teknologia berrien erabilera integratzeko gai izatea, derrigorrezko bigarren eta derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo curriculum-eduki espezifikoari erantzuteko.
- Filosofia, bere dimentsio historiko-kulturalean, ulertzeko gai izatea, egungo kultura aztertze eta kritikoki hausnartzeko beharrezko tresna den aldetik.
- Filosofia ezagutza berriak modu autonomo eta kritikoan ikasteko eta kudeatzeko funtsezko tresna gisa ezagutze gai izatea, bai eta haren aplikagarritasun profesionala eta eguneroko bizitza ere.
- Ebaluatze estrategiak eta teknikak ezagutzea eta ebaluazioa filosofia aztertze eta bultzatzeko tresnatzat hartzea.

## 4. Ikas-emaizak

1. Ikasleak Filosofiarako indarrean dagoen curriculum-proposamenak ezagutzen ditu.
2. Ikasleak filosofiaren zentzuak identifikatu eta elkarren artean alderatzen daki.
3. Ikasleak irakaskuntzak sortzen dituen arazoak eta gabeziak ulertzen ditu.
4. Ikasleak proposamen berritzaileak bilatu, ikertu, hausnartu eta diseinatzeko bideak ikasi ditu.
5. Ikasleak Filosofia irakaslearen rol ezberdinak ezagutzen ditu.
6. Ikasleak Filosofia ikasgaiarako Programazioa eta unitateak diseinatzeko ezagutzak eskuratu ditu.
7. Ikasleak Filosofiari lotutako ikasgai ezberdinen xehetasunak ezagutzen ditu.
8. Ikasleak Filosofian esku-hartze bat diseinatzeko gaitasunak eskuratu ditu.

## 5. Edukiak

1. Filosofiaren zentzuak.
2. Arazoak eta oztopoak.
3. Irakasgaiak.

## 6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

## 7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

## 8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

## 9. Bibliografia

Arrieta, A. (2015). *Filosofiarako sarrera bat*. EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo.

Arrieta, A. eta Uribarri, I. (arg.)(2008). *Filosofiaren Historia*. Elkar, Donostia.

Batzuk. (1994). *Cómo educar en valores. Materiales, textos, recursos y técnicas*. Nancea, Madril.

Camps, V. (1994). *Los valores de la educación*. Anaya, Madril.

Cifuentes, L.M. y Gutiérrez, J.M. (Koord.) (1997). *Enseñar y aprender filosofía en la educación secundaria*. Horsori, Bartzelona.

Izuzquiza, I. (1982). *La clase de filosofía como simulación de la actividad filosófica*. Anaya, Madril.

Pascual, A.V. (1988). *Clarificación de valores y desarrollo humano*. Narcea, Madril.

Salmerón, F. (1991). *Enseñanza y filosofía*. Fondo de Cultura Económica.

Tejedor Campomanes, C. (1984). *Didáctica de la filosofía. Perspectivas y materiales*. SM, Madril.